Sesiones en familia /Familiarteko saioak: 2024eko azaroak 23 (18:00) eta 24 (12:00, 18:00) /23 (18:00) y 24 (12:00, 18:00) noviembre 2024

Sesión escolar/Eskola-saioa: 2024eko azaroak 25 (11:00) noviembre 2023



## DARTAGNAN Y LOS JÓVENES MOSQUETEROS

Música/Musika: Jesús María Echeverría

Dirección de escena /Eszena-zuzendaria: Víctor Uriarte

Producción/Ekoizpena: Ópera de Cámara de Navarra

Duración/Iraupena: 60 min

Edades/Adina: 6 urtetik gora/ a partir de 6 años

Sesiones en familia /Familiarteko saioak: 2025ko urtarrilak 3 (12:00, 18:00), 4 (12:00, 18:00) eta 5 (12:00) enero 2025



## EL TRAJE NUEVO DEL EMPERADOR

Música/Musika: Iñigo Casalí

Dirección de escena /Eszena-zuzendaria: Ion Barbarin

Producción/Ekoizpena: Ópera de Cámara de Navarra

Duración/Iraupena: 75 min

Edades/Adina: 5 urtetik gora

Sesiones en familia /Familiarteko saioak: 2025ko martxoak 15 (18:00) eta 16 (12:00, 18:00) marzo 2025

Sesión escolar/Eskola-saioa: 2025ko martxoak 17 (11:00) marzo 2025



## SOY SALVAJE

Música/Musika: Maurice Delage, Claude Debussy, José López Montes

Dirección de escena /Eszena-zuzendaria: Joaquín Casanova

Producción/Ekoizpena: La Maquiné y Agencia Andaluza de Instituciones Culturales, Junta de Andalucía.

Duración/Iraupena: 55 min

Edades/Adina: 5 urtetik gora

Sesiones en familia /Familiarteko saioak: 2025ko maiatzak 10 (18:00) eta 11 (12:00, 18:00) mayo 2025

Sesión escolar/Eskola-saioa: 2025ko maiatzak 12 mayo 2025

Espectáculos fruto del convenio de colaboración entre Abao Bilbao Opera y Teatro Arriaga. Ikuskizun hauek Abao Bilbao Opera eta Arriaga Antzokiaren arteko lankidetza-hitzarmenaren emaitza dira.

# ABAO, OPERA BAINO GEHIAGO ABAO, MÁS QUE OPERA

JENDARTE OSOARENTZAKO  
KULTUR PROIEKTUA

UN PROYECTO CULTURAL  
ABIERTO A TODA LA SOCIEDAD

## ABAO KULTURALA / ABAO CULTURAL

- El ABC de la ópera
- Opera Bihotzetik
- Argitalpenak / Publicaciones



## ABAO SOZIALA / ABAO SOCIAL

- Programa didaktikoa / Programa didáctico
- Programa seniorra / Programa senior
- Ópera y +
- Bizkaia Koopera



## ABAO ESKURAGARRIA / ABAO ACCESIBLE

- Opera Berri
- Gazteam ABAO



abao.org

#ABAOGeziagoGara  
#SomosMásABAO

Datorren opera-denboraldia urrian hasiko da, programazio apartaz eta estreinaldiz betea

## ABAO BILBAO OPERA-K BERE 73. DENBORALDIA DAKAR: TRADIZIOAREN ETA MODERNOTASUNAREN ARTEAN

- Zazpi opera, hiru triada-formatuan, komedian, verismoan eta drama erromantikoan barrena dabilta.
- Pucciniren heriotzaren mendeurrena ospatzeko, ABAOk *// Trittico* taularatuko du, bere historian lehen aldiz, azaroan.
- Amartuvshin Enkhbat baritonoa Bilbora itzuli da ezohiko errexitaldi baterako.
- Ekoizpen berri eta estreinaldi, abeslari entzutetsuenak eta maisu ezagunak, denboraldi liluragarri, zirraragarri eta anbiziotsuko protagonistak.
- ABAO Txikik 20 edizio bete eta, era berean, estreinaldiak ekarriko ditu Arriaga Antzokira.
- Opera gizarte osoari hurbiltzeko konpromisoari jarraikiz, bazkide-abonamenduen 15 kategoriaren zenbatekoa murriztu egingo da, eta denboraldiko obra bakotzean bost eremutako 2.660 besaulkiren baino gehiagoren prezioak hobetu egingo dira.
- “ABAO ongilea” programa abiatuko da, Elkartearen kultur jarduera laguntzeko eta babesteko hainbat modalitate eskainiko dituena.
- BBVA Fundazioak ABAO Bilbao Operaren kultur jarduerari lagunduko dio, denboraldiaren babesle nagusia izanez.

Bilbon, 2024ko maiatzaren 7an. ABAO Bilbao Operaren **73. denboraldia, 2024-2025**ekoa, **urriaren 19an**, larunbatean, hasiko da Donizettiren ***Don Pasquale*** taularatuz. Denboraldi honetan, hala XIX. mendeko erromantizismo berantiarren eta erromantizismo ostekoaren ereduen tradizio unibertsala nola XX. menderako aldaketaren modernotasun ebolutiboa izango dira ikusgai, komedia, verismo eta dramako erregistroekin.

Datorren denboraldiak kultura- eta dibulgazio-jarduera gehiago ekarriko ditu, bai eta gizarte-programak eta **hamaika obraz** osatutako proposamen artistikoa ere: **zazpi opera Euskalduna** Bilbaon eta **lau ikuskizun Arriaga Antzokian**.

“**Liluragarriki opera**” lelopean, nazioarteko panoramako abeslari entzutetsuenak, musika-maisu sonatuak, estreinaldiak, ekoizpen berriak eta koprodukzioak, eta kalitate gorena lortzeko etengabeko ahalegina izango dira Bilboko opera-denboraldi berria egituratuko duen ardatza, bazkideak eta zaleak liluratzeko asmoz.

## DATORREN DENBORALDIAREN JAKINGARRI NAGUSIAK

- ABAO Bilbao Operak eta **BBVA Fundazioak**, denboraldiaren **babesle nagusiak**, bikaintasuna eta opera-kultura sustatzen laguntzen dute, eta publikoari kalitate goreneko ikuskizunak eskaintzen.
- Italiar erreptorioko obra ezagunak, hala nola ***Don Pasquale*** eta ***Otello***, erreptorio frantseseko ezohikoagoekin konbinatuko dira, ***La Favorite*** operarekin, kasu, lehen aldiz ABAOn; erreptorio alemaniarreko ***Tristan und Isolde*** lanarekin ere bai; eta, Pucciniren heriotzaren mendeurrena ospatzeko, ABAOk aurreneko aldiz eskainiko du ***// Trittico, II Tabarro, Suor Angelica*** eta ***Gianni Schicchi*** opera motzez osatua.

- Eskainiko diren operen eta ikuskizunen artean, nabarmentzekoak dira ekoizpen berrien **estreinaldi eta koprodukzio propioak** ***Don Pasquale*** eta ***Il Tritto*** obretarako, bai eta ***Otello*** berriro taularatuko dela ere, ABAOren ekoizpena izanik, halaber.
- Guztira, **11 obra, errezialta bat eta 39 emanaldi eskainiko** dira, 22 denboraldi orokorrean Euskalduna Bilbaon eta 17 ABAO Txiki denboraldian Arriaga Antzokian, haur eta gazteentzat, **66.300 ikusle** bildu ahal izanda.
- Denboraldi honetan, maisu hauek hartuko dute parte: **Sesto Quatrini, Pedro Halffter, Eric Nielsen, Riccardo Frizza eta Francesco Ivan Ciampak** **Bilbao Orkestra Sinfonikoa** eta **Euskadiko Orkestra** zuzenduko dituzte. Talde biek, **Bilboko Opera Koruarekin** batera, beren errepertorioa hedatu eta ABAOren kolaboratzaila egonkorren ospe artistikoa sendotuko dute.
- Munduko opera-antzoki nagusietan arrakasta duten ahots apartak, hala nola **Carlos Álvarez, Ángeles Blancas, Karita Mattila, Chiara Isotton, Gwyn Hughes Jones, Oksana Dyka, Silvia Tro Santafé, Ismael Jordi, Jorge de León eta Ermonela Jaho**, denboraldian parte hartuko duten 55 artisten artean.
- Bilbon izandako arrakastaren ondoren, **Amartuvshin Enkhbat baritono laudatua, "Rigoletto" bikainentzat joa**, errezial esklusibo bateko protagonista izango da.
- **ABAO Txiki denboraldiak**, bi hamarkada beteko dituenak, **4 ikuskizun eskainiko** ditu hainbat adinetarako. Horietako hiruk eskola-saioak izango dituzte, ABAOk prestakuntzarekin, musika-hezkuntzarekin, eta haurrekin eta familiekin duen konpromisoa berresteko.
- **Bi estreinaldi ABAO Txiki denboraldian:** *D'Artagnan y los jóvenes mosqueteros* eta *Soy salvaje*.
- **Didaktika- eta prestakuntza-programak** doako jarduera ugari eskainiko dizkie, beti bezala, hainbat adin eta jatorritako kolektiboei, bai Euskadin bai gertuko autonomia-erkidegoetan.
- **Gazteam laborategi gazteak**, erabat finkatuta, 25 eta 30 urtetik beherakoentzako jarduerak eta pizgarri ekonomikoak eskaintzen jarraituko du.
- **"Ópera y +"** gizarte-programa solidarioak, **Gurutzetako Unibertsitate Ospitalean** garatzen denak, hamargarren edizioa izango du denboraldi honetakoa, eta Ospitale barruko zein kanpoko bere jarduera sendotzen segituko du, **EDP Fundazioaren, "la Caixa" Fundazioaren** eta **Zabalgarbiren** laguntzarekin.
- Tarifa berriak baziide-abonamenduetan, **165-213 €-tik aurrera hobetuak, eta prezio beheratuko sarrerak, 25 €-tik aurrera, eremuen eta adinaren arabera.**

## 73. OPERA-DENBORALDIA

ABAO Bilbao Operaren 73. Denboraldian, **askotariko argumentu-gaiz, estiloz eta musika-ezaugarriz osatuan**, XIX. mendearen erdialdeko aro erromantikotik mende-aldaketarekin batera loratzen hasi zen trantsizio ebolutibora bitarteko lengoaiak jorratuko dira.

Lau konpositore: **Donizetti, Puccini, Wagner** eta **Verdik** italiar errepertorioko obra ezagunak ekarriko dituzte ABAOren agertokira, ***Don Pasquale***, besteak beste, ***La Favorite*** frantseset, ABAOn estreinaldia, eta ***Otello***, errepertorio alemaniarreko ***Tristan und Isolde*** operarekin konbinatuta. Gainera, azaroan, ABAOk ***Il Tritto*** eskainiko du, lehenbizikoz, Pucciniren heriotzaren mendeurrenena ospatzeko.

Denboraldi honetan, **koprodukzio eta ekoizpen propio berriak estreinatuko dira, eta bi eszena-zuzendarik, musika-zuzendari batek eta zazpi abeslarik debuta** egingo dute. **Bilboko Opera Korua**, Boris Dujinen zuzendaritzapean, denboraldiaren alderdi koralaz arduratuko da, **Bilbao Orkestra Sinfonikoarekin eta Euskadiko Orkestrarekin** batera arituz. Talde horiek biak, bai Estatuan bai nazioartean gero eta prestigiotsuagoak direnak, programazioan parte hartuz ABAO Bilbao Operaren laguntzaile egonkor gisa finkatuko dira.

Agertokian, emakume abeslari bikainen presentzia nabarmengarria: **Ángeles Blancas, Chiara Isotton, Karita Mattila, María José Moreno, Oksana Dyka, Silvia Tro Santafé eta Ermonela Jaho**. Haien ondoan, gizonezko ahots nabarmenak, besteak beste **Carlos Álvarez, Ismael Jordi, Amartuvshin Enkhbat, Simón Orfila, Gwyn Hughes Jones eta Jorge de León**, denboraldian izango diren **56 artisten** artean.

Horrez gain, denboraldi orotan bezala, ABAO Bilbao Operak **kultur jarduera paralelo bizia garatuko du**, hitzaldi-zikloak, hitzaldi didaktikoak eta bisita gidatuak antolatzu, bazkideak fidelizatzeko eta publiko berriak erakartzeko ekintzak eginez, eta bestelako gizarte- eta kultura-jarduerak eskainiz, hainbat erakunde eta enpresarekin lankidetzan, bai Euskadin bai autonomia-erkidego mugakideetan.

**BBVA Fundazioak**, ezaugarri bereizgarria ezagutza zientifikoari eta kultur sorkuntzari ematen dien bultzada duenak, **denboraldiaren babesle nagusia** izanez kolaboratuko du ABAO Bilbao Operarekin.

Gaetano Donizetti

## **DON PASQUALE**

2024ko urriak 19, 22, 25, 26 (Opera Berri) eta 28

- **Simón Orfila eta María José Moreno izango dira protagonistak.**
- **Oholtzan, Emiliano Suárezek ABAO Bilbao Operarentzat sortutako ekoizpen burutsu, dibertigarri eta originalaren estreinaldi, The Nouse-rekin baterako koprodukzioa izanik.**
- **Sesto Quatrini maisuaren debuta ABAOn, Euskadiko Orkestra zuzenduz.**
- **Opera Berri programaren XIX. edizioa, bigarren abeslari-taldearekin, rol nagusietan Enric Martínez-Castignani eta Sofía Esparza izanik, eta sarrerak ohiko prezioa baino % 50 merkeago.**

ABAO Bilbao Operak bosgarren aldiz taularatuko du **Don Pasquale**, opera bufo italiar bikainen arteko azkena, *commedia dell'arte* delakoan oinarritua.

Donizettik, opera honetan, tramaren ardatz nagusi gisa gizarte-ohiturak kritikatu nahi ditu, eta, horretarako, lau pertsonaiatan oinarritutako endredozko komedia dakar: Don Pasquale zapaltzaile, ergel eta erretxina, **Simón Orfilak** gorpuztua; maiteminduak: Ernesto xaloa eta Norina zuhurra, **Maria José Morenok** eta **Francesco de Murok** antzeztuak; eta Malatesta Doktorea azpijkokoetako bitartekari- eta konplize-rol tradizionalean, **Damián del Castilloren** eskuak. Azkenik, **Pedro Mari Sánchez** aktore ezagunak notarioaren papera jokatuko du.

Komedia bikaina da, ondo egituratua eta sentimenduz betea, non eszena bufoak eta lirikoak, bitxiak eta samurrik, larriak eta maitagarriak aria, duo eta taldean abestutako pasarteen konbinazio dotorearekin tartekatzen diren.

Musikaren alorrean, **Sesto Quatrini** maisuak debuta egingo du, **Euskadiko Orkestra**ren buruan, Donizettiren partitura orekatu eta perfektuentzat jotzen dena zuzenduz.

Oholtzan, **ABAO Bilbao Operaren** eta **Okapi Producciones**-ren **koprodukzio berriaren estreinaldi, Emiliano Suárezek** ABAOn debutatzeko sortua. Napoliko pizzeria polit bat irudikatzen du, tamaina handiko irtenbide eszeniko burutsu, bizi, original eta mugimenduz betetakoarekin, zeina, era berean, xehetasun asko dituelako nabarmenzen den.

Urriaren 26an, obra honen **Opera Berri** emanaldia izango da. ABAO Bilbao Operaren ekimen soziokultural honek, oraingoan XIX. edizioa izango duenak, opera gizarteari hurbiltzea du xede, obra oso ezagunak eskainiz eta sarreren ohiko prezioa % 50 beheratuz. Bigarren abeslari-taldeko protagonistak **Enric Martínez-Castignani, Sofía Esparza** eta **Juan Antonio Sanabria** izango dira.

Giacomo Puccini

### ***IL TRITTICO***

2024ko azaroak 23, 26, 29 eta abenduak 2

- **Lehen aldiz programatuko da ABAO Bilbao Operan, konpositorearen heriotzaren mendeurrena ospatzeko.**
- **Carlos Álvarez, Ángeles Blancas eta Marco Berti izango dira protagonistak // Tabarro-n; Chiara Isotton eta Karita Mattila, Suor Angelica-n; eta Carlos Álvarez, berriro, eta Sofía Esparza, Gianni Schicchi-n.**
- **Musikaren alorrean, Pedro Halffter maisu ospetsua Bilbao Orkestra Sinfonikoaren buru.**
- **ABAO Bilbao Operaren beste ekoizpen baten estreinaldi, Paco Azorínek sinatua.**
- **BBVA Fundazioak babestua.**

Azaroaren 29an, Giacomo Pucciniren heriotzaren mendeurrena ospatuko da. Erabateko jenio musikala, nortasun paregabe eta sailkaezina zuena, eta antzerkigintzan maisu hutsa, bere operak lirikaren historiako ezinbesteko maisulanen artean daude, eta bere pertsonaiak eta andrazko heroikak ospetsu eta ezagunen artean. Efemeridea ospatzeko, **ABAOk bere historian lehen aldiz // Trittico programatuko du, osorik.**

Heriotza ildo nagusi, *Il Trittico* hiru opera motzez osatutako trilogia da: ***Il Tabarro, Suor Angelica*** eta ***Gianni Schicchi***. Dante Alighieriren *Jainkotiar* komedia obran oinarrituta, Pucciniren asmoa zen *Il Tabarro*-k, tragiko eta veristak, infernua irudikatzea; *Suor Angelica*-k, malenkoniatu eta lirikoak, purgatorioa; eta *Gianni Schicchi*-k, zerua, komedia-eran.

Ahotsei dagokienez, hiru obrek eskakizun zorrotzak dakarzkiete bertan parte hartzen duten abeslariei, eta opera-triada honetan maila handiko bakarlariak izango dira: **Carlos Álvarez, Ángeles Blancas, Marco Berti, Chiara Isotton, Karita Mattila, Joan Hotea, Stefano Palatchi, Ana Ibarra, Anna Gomá, Sofía Esparza eta Itziar de Unda**, benetako tour de force artistiko honetan parte hartuko duten 29 interpreten artean.

**Pedro Halffter** maisua arduratuko da, **Bilbao Orkestra Sinfonikoa** zuzenduz, orkestra-lengoia bizi bezain ikusgarria eta hala kolorez nola testuraz betetako adierazpen-paleta itzela bideratzeaz, alegia, erritmo bizkorra eta kontraste dramatiko handiak dituzten hiru partiturak.

Eszenatokian, ABAO Bilbao Operaren ekoizpen aparta, estreinaldi, **Paco Azorínek** sinatua. Hiru operak sormen-lan handiaren emaitza izango dira, hiru koadro individual mugimenduan egongo den eszenografia txundigarriarekin birstortuko baititu, argiztapenak eta proiekzioek zeregin oso garrantzitsua izanik, neorrealismo italiarrean oinarrituta.

Richard Wagner

### ***TRISTAN UND ISOLDE***

2025eko urtarrilak 18, 21, 24 eta 27

- **Abeslari-taldeko boskote protagonista: Gwytn Hughes Jones, Oksana Dyka, Daniela Barcellona, Marko Mimica eta Egils Silins.**
- **Musika-zuzendaritzan, Erik Nielsen Bilbao Orkestra Sinfonikoaren buru.**
- **Produkzioa, emozio biziz betea, Allex Aguilerarena.**
- **BBVA Fundazioak babestua.**

2025. urtea hasteko, ABAO Bilbao Operak erromantizismo alemaniarraren irudikapen gorena taularatuko du, Richard Wagnerren ***Tristan und Isolde***, hain zuzen ere, lirikaren historiako funtsezko paradigma eta mugarria, zeinaren preludioak behin betiko ireki zituen konposizio-bide berriaren atekat.

Hiru ekitaldiko musika-drama honek, konpositoreak berak Gottfried von Strassburgen erromantzean oinarritura sortutako libretoa duenak, erromantze hori aldi berean “Tristan”-en Erdi Aroko elezaharrean oinarritura egonik, mundu honetatik haragoko maitasun-istorio bat kontatzen du, mendekurik ankerrena, sentsualitaterik liluragarriena, traiziorik garratzena eta bakardaderik mingarriena biltzen dituena.

Obrak oro har eta bikote protagonistarentzat bereziki duen musika-konplexutasun ikaragarriari aurre egiteko, ABAOk **Oksana Dyka**, egungo soprano dramatiko garrantzitsuenetakoia, izango du Isolderen rolean, eta Tristan, beriz, **Gwytn Hughes Jones** galestarrak antzeztuko du, elkartean debuta egingo duenak.

Haien ondoan, **Daniela Barcellona** mezzosopranoa Brangäne zaindariaren larruan; **Marko Mimica** König Markeren rolean, Wagnerrek bigarren ekitaldian bakarrizketa bizi eta mingarria kantatzen jartzen duenarenean; eta **Egils Silins** Kurwenal antzezten.

Orkestra-podiumean, partitura liluragarria eta zirrara nahiz bizitasun poetiko wagneriarrez betea zuzentzeko, **Eric Nielsen** maisua **Bilbao Orkestra Sinfonikoaren** buru. Partituraren kromatismo, tonalitate eta koloreak, “Tristanen akorde” ospetsuak edo leitmotivak musika-konposizioaren ikuspegi ameslari, iraultzaile eta abangoardista ezarri zuten.

Oholtzan, Maestranzako Antzokiaren ekoizpena, **Allex Aguilerak** sortua, klasikoa izanagatik ere modu modernoan gauzatua. Tristanen eta Isolderen ametsezko mundua bideo-teknologia berrieikin birstortzen du, inpaktu bisual ederreko sorkuntza onduta.

Gaetano Donizetti

### ***LA FAVORITE***

2025eko otsailak 15, 18, 21 eta 24

- **Ahots bikainen hirukote protagonista: Silvia Tro Santafé, Ismael Jordi eta Vladimir Stoyanov.**
- **Eszenaratzea, 2022ko ekoizpen onenaren Abbiati sariaren irabazlea, Valentina Carrascorena da.**
- **Riccardo Frizza, nazioarteko paregabeko maisuetako bat, Euskadiko Orkestraren zuzendari.**

Otsailean, ABAO Bilbao Operak denboraldiko **bigarren estreinaldi** aparta taularatuko du: ***La favorite***, Donizettirena, **frantsesezko jatorrizko bertsioan**. Orain arte, italierazko bertsioa bakarrik antzeztu izan da ABAOn, azkenengo aldiz duela 25 urte.

Donizettiren opera honi *grand opéra* frantsesaren estiloa dario, lau ekitaldirekin, balletarekin, koruekin eta eszena ikusgarriekin, eta Erromantizismoa eragin zuen exotismo espainiarra delakoarekin bat dator. Gaztelako Alfontso XI.a erregearen eta Leonor de Guzmán arteko harremana du oinarri; erregeak bederatziz seme-alaba izan zituen harekin, Portugalgo María

erreginarekin ezkonduta egon arren. Amodiozko triangelu, pertsonaia historikoak, jauntxokeria, sakrifizioa, halabehar tragikoa, eta eskandalu moral eta erlijiosoa biltzen dituen istorioa.

Ahots paregabeak nabarmentzeko opera ezin hobea izanik, mota honetako errepetorioan ospe handia duten abeslariak erakartzen ditu, hala nola **Silvia Tro Santafé** mezzosoprano georgiarra, Leonor de Guzmán jasankorra antzeztuko duena; **Ismael Jordi** tenorra, amodiozko triangeluaren hirugarren erpina, Fernand, izango dena; eta **Vladimir Stoyanov** baritonoa, Alfontso XI.a maitale amorruaren rolean. Haien ondoan, **Simón Orfila, Mikeldi Atxalandabaso** eta **Alba Chantar**.

Musika-zuzendaritzaz Bergamoko Donizetti Jaialdiaren zuzendari **Riccardo Frizza**, ABAO Bilbao Operaren Tutto Verdi Saria, arduratuko da, eta, **Euskadiko Orkestra** zuzenduz, musika jarriko dio edertasun melodiko bikainez, anbizio dramatikoz eta Erromantizismoko *bel canto*-z osatutako jatorrizko partiturari.

**Valentina Carrasco**, ABAOn debuta egingo duenak, Fondazione Teatro Donizetti eta Opéra National Bordeaux ekarriko du ekoizpena, 2022. urtean Italiako kritikaren ekoizpen onenaren **Abbiati saria** eskuratu zuena. Regista argentinarrak harridura sortuko du ikuspegি feminista, dotorea, asmo handikoa eta erreferentzia historiko txundigarriak dituen proposamenarekin.

Giuseppe Verdi

### **OTELLO**

2025eko maiatzak 17, 20, 23 eta 26

- **Abeslari-talde bikaina, protagonista Jorge de León, Ermonela Jaho eta Claudio Sgura dituena.**
- **ABAO Bilbao Operaren ekoizpen klasikoa, Ignacio García zuzendariarena, Lorenzo Caprileren jantziekin.**
- **Bilbao Orkestra Sinfonikoak efikazia dramatiko handiko partitura joko du, Francesco Ivan Ciamparen zuzendaritzapean.**

Maiatzean, denboraldiari amaiera emateko, Verdiren **Otello** izango da oholtzan, musika- eta antzerki-tentsioaren eztanda hutsa. Ezinbesteko obra da, konpositorearen azken-aurreko opera, hasierako lehen konpasetik bertatik bukaeraraino musika-indar liluragarri eta etengabeak zeharkatuta dagoena.

Istorio tragicoa eta betiereko honetan, maitasuna, jeloskortasuna, arrazakeria, handinahia, manipulazioa eta engainua errepetorio verdiarraren azken-aurreko obran uztartzen dira, William Shakespeareren izen bereko draman oinarrituan, idazle ingeles unibertsalenari omenaldi aparta eginda.

Drama liriko honetako protagonistak gorpuzteko, kontuan hartuta hiru rol nagusiak musikalki eta dramatikoki Verdiren zorrotzenen artean daudela, ABAOk honako hauek jarriko ditu artista-taldearen buru: **Jorge de León** tenorra, Bilbora Otello antzeztereta eta "Esultate" indartsuari, lirikaren munduko tenorrarentzako sarrera ospetsu eta zailenetakoari, ahotsa jartzera itzuliko dena; **Ermonela Jaho** soprano albaniar aparta, Desdemonaren rola jokatuko duena, tragediako biktima, maitasun garbiaren, fedearren eta errukiaren bertuteak bereizgarri dituena; **eta Claudio Sgura**, erreferentziazko baritono verdiarra, Jago eta haren trikimailuak hezurmamituko dituena.

Musika **Francesco Ivan Ciampa** zuzendari italiarraren esku egongo da, zeinak, **Bilbao Orkestra Sinfonikoa** zuzenduz, ahalik eta etekin handiena aterako dion partiturari, Bussetoko jenioaren bilakaeraren gailurra den horri.

Agertokian, ABAO Bilbao Operaren ekoizpena, **Ignacio García** sortua eta 2015ean estreinatua. Eszenografia zaindu, soil eta dotorean, haute couture jantzi ikusgarriak izango dira, oso koloretsuak eta xehetasun dotorez josiak, **Lorenzo Caprile** diseinatzale bikainaren eskuak.

## **AMARTUVSHIN ENKHBAT, “RIGOLETTO” ONENA, ERREZITAL ESKLUSIBO BATEKO PROTAGONISTA**

- Bilbon eskaini zuen *Rigoletto* arrakastatsuaren ondoren, Amartuvshin Enkhbat baritonoa ABAOra itzuliko da
- Pianoan, Stefano Salvatori maisu ospetsua
- Abonamenduz kanpoko kontzertua.
- BBVA Fundazioak babestua.

Martxoaren 29an, larunbatean, **Amartuvshin Enkhbat baritono mongoliarrak, Bilboko eszenara itzulita, errezital esklusiboa eskainiko du.**

Baritonoaren ahots-korronte indartsu sakonak, ilun eta biziak, eta hala aktore-gaitasun eraginkorrik nola antzerki-adierazkortasunak nazioarteko opera-panoramako abeslari garrantzitsu eta goraipatuenetako bihurtzen dute.

Joan den denboraldian, baritono goraipatuak ABAO Bilbao Operaren *Rigoletto*-ren emanaldi guztietan “*Si, vendetta tremenda vendetta*” duoaren bisa egin zuen, eta emanaldiako bitan bis bikoitza oparitu zion publikoari, Sabina Puértolas sopranoarekin batera. Egungo opera-panoramako “Rigoletto” onentzat joa denaren talentu aparta ahots-bikaintasun ezin handiagoz azaleratu zen eszena bizi, zirraragarri eta heroikoan, non interpretazio gogoangarria eskainiz erabateko handitasuna erakutsi zuen.

Pianoan, Stefano Salvatori maisua izango du lagun, ABAOn debuta egingo duena. Konpositorea eta orkestra-zuzendaria da, eta pianista laguntzaile ezagunenetako bat. 2001. urtetik maisu laguntzailea Milango Teatro alla Scala antzokian, zuzendari eta artista prestigiosuenekin jarduten du.

ABAOren Kontzertua-k emanaldi bakarra izango du, abonamenduz kanpokoa.

## **XX. ABAO TXIKI DENBORALDIA**

- Lau ikuskizun: *Pedro eta Otsoa, D’Artagnan y los jóvenes mosqueteros, El traje nuevo del emperador eta ¡Soy Salvaje!*
- 17 emanaldi hainbat adinetako publikoentzat, gutxi gorabehera 18.700 ikuslerentzat.
- Bi estreinaldi: *D’Artagnan y los jóvenes mosqueteros eta ¡Soy Salvaje!*

ABAO Bilbao Operak gazteenen hezkuntzarekin eta garapenarekin duen **konpromisoari eutsiko dio**, kultur eraldaketan eta kalitatezko ikuskizunen programazioan oinarrituta. Hala, **ABAO Txiki Arriaga Antzokian**, bere **hogeigarren edizioan**, bai alderdi artistikoan bai pedagogikoan finkatuko da, **lau ikuskizun eskainiz**, horietako **bi estreinaldiak ABAOn** eta familiek gehien irrikatuak; guztira, **17 emanaldi izango dira**, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe eta ikasleentzako hiru eskola-saio barne.

**Pedro eta Otsoa, Serguéi Prokófievena**, izango da denboraldiko lehena, azaroaren 23an, 24an eta 25ean, adimenari eta ausardiari buruzko istorioa ekarrita. Euskarazko lan honetan, **Enrique Lanzen Etcétera** konpainiaren ekoizpenean, musika eta txotxongilo argitsuak dira benetako protagonistak, eta haurrei orkestra bateko instrumentuak erakusteko sortuta dago, Pedroren istorioaren bitartez, alegia, bere asmamenarekin eta adorearekin otsoa ehizatzeko gai izan zen haurra ezagutaraziz.

Urte berria ospatzeko, urtarrilaren 3an, 4an eta 5ean **D'Artagnan y los jóvenes mosqueteros** lanaren estreinaldia, **Jesús María Echeverría**ren musikarekin. Alejandro Dumasek sortutako pertsonaia literario ezagunetan oinarrituta, oraingoan protagonistak mosketari zaharren seme-alabak dira: ezeren eta inoren beldur ez diren bi neska eta mutiko ekintzaile bat. Elkarrekin, gaiztoak garaituko dituzte eta Dofin gaztea, hurrengo enperadorea, aurkituko dute. Nafarroako Ganbera Operaren ekoizpen berria, Víctor Iriartek zuzendua.

Martxoaren 15ean, 16an eta 17an, **El traje nuevo del emperador** iritsiko da, Hans Christian Andersenren ipuin klasikoa opera komikora ekarrita, non abeslariek, aktoreek eta dantzariek enperadorearen istorioa kontatuko duten: arropa hain du gustuko, bere diru guztia jantzi berriean gastatzen du, bere erresumako pertsonen beharrei jaramonik egin gabe. **Nafarroako Ganbera Operaren** ekoizpen honek **Iñigo Casalíren** musika du, eta eszena-zuzendaritza **Ion Barbarinena** da.

Denboraldia amaitzeko, maiatzaren 10ean, 11n eta 12an ***¡Soy Salvaje!*** estreinatuko da Bilbon, **La Maquinéren** eta Andaluziako Kultur Erakundeen Agentziaren diziplina anitzeko ikuskizuna, **Joaquín Casanovaren** eszena-zuzendaritzarekin, eta **Delege, Debussy** eta **López Montesen** musikarekin. Obrak kantu lirikoko elementuak, pianoa, txirula eta perkusioa uztartzen ditu, antzezle, txotxongilo, itzal, objektu eta eszenako proiekzioekin batera. Istorioak oihanean hazitako Mona izeneko neskatoaren eta gatibutasunean hazitako zoritzarreko Koko gorilaren arteko harremana kontatzen du. Kokok, zoriontasuna aurkitzeko bere sen primarioaz jabetuta, lotura berezia sortuko du Monarekin.

## ABONAMENDU ETA SARRERA ARTEAN, 2.660 BESAULKIREN PREZIOAK JAITSI EGINGO DIRA

- Edukieraren % 31n, abonamenduen eta sarreren tarifik murriztu egingo dira.
- 44 abonamendu-kategoria 165 €-tik aurrera gazteentzat eta 213 €-tik aurrera 36 urtetik gorakoentzat.
- 5 eremutako sarreretan prezio berriak, 25 €-tik aurrera 35 urtera bitarteko gazteentzat eta 49 €-tik aurrera 36 urtetik gorakoentzat.
- Gazteam ABAO tarifa laua, 28 eta 33 €-koak, edozein besaulki, obra edo emanalditan.
- Urrian, ***Don Pasquale*** obraren Opera Berri emanaldiak 14 €-tik aurrerako sarrerak eskainiko ditu, eta martxoan errexitala ikusteko sarrerak 15 €-tik aurrera egongo dira salgai.

Bilboko opera-denboraldiak **bazkide-abonamenduaren 44 kategoria prezio** hobeekin eskainiko ditu: **213 €-tik aurrera 36 urtetik gorakoentzat eta 165 €-tik aurrera 35 urtera bitarteko gazteentzat**, kuota soziala barne. Bost eremutan, 15 abonamendu-motaren tarifik murriztu egingo dira, hirutan txanda guztietan.

Bost eremutako sarreren zenbatekoak ere hobetu egingo dira, 25 €-tik aurrerakoak ezarrita besaulkiaren eta adinaren arabera. Guztira, abonamendu eta sarrera artean, denboraldi berrian 2.660 besaulkiren prezioak jaitsiko dira obra bakoitzean, guztizko edukieraren % 31 hartuta.

Don ***Pasquale*** operaren **Opera Berri emanaldia** ikusteko, urriaren 26an, 35 urtera bitarteko gazteek 14 €-tik aurrerako sarrerak izango dituzte eskuragarri, eta 36 urtetik gorakoek, berriz,

29 €-tik aurrerakoak. **Errezitala, martxoan, sarrerak** 15 eta 20 €-tik aurrera ordainduta gozatu ahal izango da.

Gainera, 30 urtetik beherakoek **Gazteam tarifa** lauaz gozatu ahal izango dute denboraldi osoan, edozein obra edo emanalditarako eta erabilgarri dauden besaulki onenetan, 25 urterako bitarteko gazteek 28 €-an eta 26-30 urte bitartekoek 33 €-an.

**Bost familia-abonamendu mota daude ABAO Txiki denboraldiko** lau ikuskizunetarako, 35 eta 60 € bitartekoak, eta 6 €-tik aurrerako sarrerak 15 urtetik beherakoentzat eta 8 €-tik aurrerakoak zaharragoentzat.

Ekimen honen bidez, ABAO Bilbao Operak kultura eta opera gizarte osoari hurbildu nahi ditzio, bai eta publiko-, ekonomia- eta interes-mota ororentzako askotariko genero artistikoak eta prezio erakargarri bezain eskuragarriak eskaini ere.

## ABAO ESKURAGARRIA. KULTUR JARDUERAK ETA GIZARTE-PROGRAMA

- “El ABC de la Ópera” zikloak denboraldiko obrei buruzko sei hitzaldi eskainiko ditu.
- Hiru hamarkada baino gehiago operaren inguruko programa didaktikoa garatzen, gure lurraldean eta bertatik kanpo jarduera gehiago eginez.
- “Ópera y +” programak, Gurutzetako Unibertsitate Ospitalean garatzen denak eta hamarkada bat beteko duenak, lagunza emozionala ematen jarraituko du, jarduera gehiago eta kolektibo berriei ere eskainiz.
- **Gazteam ABAO** operazale gazteen artean finkatuko da.

ABAO Bilbao Operak kultura- eta gizarte-programa oparoa antolatzen du, gizarte osoarentzako doako jarduera eskuragarri ugariz osatua, opera publiko guztiei hurbiltzeko, kultura eta arterako guneak sortuz hurbildu ere.

“**El ABC de la Ópera**” zikloak, sektorean ospe handia duten hizlarien eskuistik doako hitzaldiak eskaintzen dituenak, beste edizio bat beteko du **Deustuko Unibertsitatean, DeustoBiderekin** elkarlanean. Denboraldi honetan, honako hauek hartuko dute parte: **Rafael Bernardo** eta **Mariela Rubio** kazetariekin osatutako bikotea, Cadena SER irratiko Play Opera programa zuzentzen duena; **Pedro Halffter** orkestra-zuzendari eta konpositorea; **Luis Gago** musika-kritikari, editore eta idazlea; **Eva Sandoval** musikologo eta kultur dibulgatzalea; eta **Ruben Amón** kazetari eta idazle famatua.

**ABAOreren Programa didaktikoa**, Estatuan aitzindaria, irailean abiatuko da ehun ikastetxetan baino gehiagotan, dibulgazio-hitzaldiak eta tailerrak emanez. Programa, nagusiki, Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta DBHko ikasleentzat da, eta irakasleentzako gida pedagogikoak eta ABAO Txiki denboraldiko **eskola-saiok** ere badakartzza, edo, ikasle zaharragoen kasuan, denboraldi orokorreko emanaldietara joateko aukera.

Jarduera hau helduen beste talde eta kolektibo batzuei ere eskaintzen zaie, esperientzia-gelei eta adinekoen kultur zentroei, adibidez, bai unibertsitateetako bai Bizkaiko, Gasteizko, Iruñeko, Burgosko eta Santanderko udalekin hitzartutakoei. Senior Programaren barruan, hitzaldi didaktikoak, antzerkirako bisitak eta opera-emanaldietara joateko parada eskaintzen dira.

“**Ópera y +**” programak **Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko** paziente, senide eta osasun-lingileen ongizate emozionalari laguntzea du xede, operaren eta ospitale barruko zein kanpoko jarduera paraleloen bidez. Hasieran Nefrologia, Pediatría eta Neonatología unitateetan egiten bazen ere, azken edizioetan hedatu egin da eta gaur egun zerbitzu hauek

ere barne hartzen ditu: Eguneko Ospitalea, Hesteetako Gaixotasun Inflamatorioko Unitatea, Barne Medikuntza, Pneumologia, Onkologia eta Onkologia Erradioterapikoa. Proiektuak, berritzaire, solidario eta inklusiboak, irailean ekingo dio bere X. edizioari, ohi bezala **EDP Fundazioaren, "la Caixa" Fundazioaren eta Zabalgarbiren** laguntzarekin. Erakunde horiek ere boluntariotza-plana ezarri dute beren langileentzat ABAOrekin batera garatzen duten gizarte-lana eta kulturaren, musikaren eta osasunaren arteko harreman positiboa ezagut ditzaten.

Halaber, ABAO Bilbao Operak publiko gaztea erakartzeko eta fidelizatzeko lanean jarraitzen du, hainbat erraztasun eta kontu erakargarri eskainiz, besteak beste 30 urtetik beherako gazteentzako **Gazteam ABAO** programa, non **28 eta 33 €-ko tarifa** lauak dituzten eskuragarri operara edozein obra edo emanaldi ikustera joateko, erabilgarri dauden besaulkirkir onenetan, gainera.

**Gizarte-inklusio eta -lankidetzarako programa** eta jarduera solidarioek, gaitasun desberdinak dituzten edo bazterkeria-arriskuan dauden pertsonak lirikara eta kulturara hurbil daitezen bultzatzeko sortutakoek, hirugarren sektoreko hainbat erakunderek eta enpresa eta erakunde laguntzaileekin elkarlanean garatzen jarraituko dute.

## "ABAO ONGILEA" JAIOKO DA

- **Norbanakoentzako zein enpresentzako programa, kulturarekiko eta operarekiko lotura handiagoa lortzeko.**
- **Ekarpenak donaziotzat joko dira eta zerga-onurak izango dituzte.**
- **Lau lankidetza-modalitate, 50 €-tik aurrera.**

ABAO Bilbao Operak "ABAO ongilea" programa abiatuko du bere komunitatera talentu sortzailea sustatu nahi duten eta Bilbon kultura eta operaren etorkizuna babestu nahi dituzten norbanakoak eta enpresak biltzeko.

Laguntzaile-mota berri hau Elkartearen estatutuen azken aldaketan onartu zen, gizarteak Bilboko kulturarekiko eta operarekiko agertzen dituen babes eta lotura areagotzea lortzeko. Programaren helburu nagusia Elkartearen funts propioak sendotzea da, eta guztiz bateragarria da beste babes- eta mezenasgo-programa batzuekin.

ABAO Bilbao Operak lau lankidetza-modalitate proposatuko ditu: Ongile Gaztea, 50 eta 200 € bitarteko ekarpenetarako; Ongilea, 201-1.000 € bitarteko ekarpenetarako; Ongile Laguntzailea, 2.001-2.500 € bitarteko ekarpenetarako; eta Ongile Babeslea, 2.500 €-tik gorako ekarpenetarako.

Ekarpenak donaziotzat joko direnez, % 45eko zerga-kenkaria jaso ahal izango dute.

Programa hau gizarte osoa ABAO Bilbao Operaren hazkundean eta hedapenean inplikatzeko ilusioarekin sortu da, modu aktiboan parte har dezan Bilboko kultur proiektua eta opera nazioarteko erreferente gisa bultzatuko dituen paregabeko komunitate honetan.

**Sare sozialtako traolak:** #ABAOBilbaoOpera, #ABAOTxiki, #ABAOhaztezin

**Etiketak:** @ABAOBilbaoOpera, @FBBVA

## DESKARGATU:

- Ekoizpenen argazkiak eta zirriborroak eta artista nagusien irudiak
- 73. Denboraldia iragartzeko trailerra